

PIZTI BIHURTU ZEN EMAKUMEA

Anton Erkorekak Mundakan bildutako kondaira zaharra

Gure aitite ardiekin joaten zen neguan Katillotxu aldera. Bertan inguruan Ana Mari *Kutxillo*¹ deitutako emakumea bizi zen. Bost ardi zituen eta antza denez bostak gosez hil.

Ana Marik esan zion:

- Domingo, ez zara joango nire ardien gibela jan barik, ezta?

Baina ez zuen gibela jan nahi duela egun batzuk hilda baitzeuden ardiak.

- Ez, ezin naiz geratu. Etxera joan behar dut- erantzun Domingok.

- Ez zara ondo ibiliko! –erantzun Ana Marik.

Aitite itzultzen ari zenean –Erkorekaren berriemailearen familiari gertatutakoa da- santzoa edo irrintzia egiten ziotela konturatu zen. Berak ere, santzoa edo irrintzia bota zuen bere morroia zelakoan.

Eta sorgina zen emakume hurak, piztia zen hurak, hartu zuen gure aitite eta Tribiseko harrobira eraman zuen.

Eta hantxe esan zuen:

- Jesus!

Goitik behera basaz beteta irten egin zuen aititek eta etorri zen *Madariara* eta hortik etorri zen etxera.

(1) Kutxillo ezizena jarri zioten gizonezko bat ganibetez edo kutxilloz hil omen zuelako.